



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Dirección de Promoción de la Cultura

ERABAKI-PROPOSAMENA, "ZINEUSKADI ELKARTEA" ENTITATEARI URTE ANITZEKO DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEKO DENA, "NOKA INDUSTRY" IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUA MARTXAN JARTZEA FINANTZATZEKO, 2023-2024 EPEALDIAN

(Emakumeek zuzendutako film luzeak)

PROPUESTA DE ACUERDO POR LA QUE SE CONCEDE UNA SUBVENCIÓN DIRECTA PLURIANUAL A LA ENTIDAD "ASOCIACIÓN ZINEUSKADI" PARA FINANCIAR LA PUESTA EN MARCHA DEL PROYECTO AUDIOVISUAL "NOKA INDUSTRY", PERÍODO 2023-2024

(Largometrajes dirigidos por mujeres)

AAAA_ACG_AY_6185/23_11

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, besteak beste, Kultura Plangintzako Zerbitzuari dagozkion eginkizunak ditu esleituta. *Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren arabera*, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio funtzio orokorrak betetzea honako arlo hauetan: musika, arte eszenikoak, liburuak, ikus-entzunezkoak, ikusizko arteak eta kultura- eta sormen-industriak; eta, zehazki, bere eskumeneko arloetan, kultura-proiektuen sorkuntza, ekoizpena eta hedapena sustatzeko ekintzak proposatu eta kudeatzea, bai eta kultura-sektorearekin hitz egiteko eta kontrastatzeko espazioak sustatu eta kudeatzea eta, hala badagokio, proposamen berriak bultzatzea ere (12.1 artikulua).

"NOKA INDUSTRY" emakumeen ikus-entzunezko garapenean zuzendaritza- eta produkzio-taldeei laguntzeko proiektua da. Horretarako, bost prestakuntza-modulu eskainiko dituzte. 1. modulua: gidoiak idaztea, norberak zuzendari gisa duen kontzientzia eta zinemaren historian murgiltzea.

2. modulua: idazketa lantzeko moduak, proiektuaren zuzendaritza-dosier on bat egiteko gakoak eta tresnak ezagutzeko saioak, etorkizuneko gidoiak nola banakatu eta movie magic edo baliokidea nola erabili. Era berean, finantzaketa-plana eta iraunkortasuna lantzen hasiko dira. 3. modulua: lab-industrien eta foro profesionalen mapa, deialdien, laborategien, merkatuen eta jaialdien aukerak ezagutzea, proiektuak aurkezteko eta ekoizleekin harremanak eta finantzaketa lortzeko.

4. modulua: aurrekontu xehatua egitea aholkulariekin eta nazioartekotzeko masterclass bat egitea, merkatuetara nola jo, merkatuez nola baliatu, merkatuetan zer aukera dauden edo zer motatakoak diren interesgarriak. 5. modulua: bi masterclass, bata marketin banaketa-estrategiari buruzkoa eta bestea piching-lantegiari buruzkoa.

Tailerrak garatzeko, mentoreak izango dira, eta hainbat gairi buruzko ikastaroak eta tailerrak emango dituzte: zerga-pizgarriak, telesailetako kultura, telesail bat idazteko gakoak, zinema beltzari aplikatutako kriminologia, zure lehen film laburraren aurrekontua nola egin, eta, azkenik, Araban ikus-entzunezkoen laborategi bat ("Project Lab"). "Audiovisual Project Lab" Euskadiko ekoizleei eta haien gidoi- eta zuzendaritza-taldeei zuzendutako proiektuen bultzada optimizatzekeo tresna bat da. Horretarako, mentoriak eta aholkularitza indibiduala eskaintzen dizkie 4-6 proiektuari, kalitateagatik eta potentzialagatik hautatuak.

Proiektuak 142.000,00.- euroko kostua izango du guztira. Beraz, *Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuekin bateragarritzat jotzen diituen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 53.8 artikuluan ezarritako laguntzaren gehieneko zenbatekoaren muga errespetatuz*, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari 90.000,00.- euroko dirulaguntza eskatu diote 2023-2024 aldirako, honela banatuta:

El Departamento de Cultura y Política Lingüística tiene asignadas, entre otras, las funciones relativas al Servicio de Planificación Cultural. De conformidad con el *Decreto 73/2021, de 23 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística*, corresponde a la Dirección de Promoción de la Cultura el ejercicio de las funciones generales en las áreas de música, artes escénicas, libro, audiovisual, artes visuales e industrias culturales y creativas, y, específicamente, proponer y gestionar acciones dirigidas al fomento de la creación, la producción y la difusión de los proyectos culturales en el ámbito de las áreas de su competencia, así como promover y gestionar espacios de diálogo y contraste con el sector cultural e impulsar, en su caso, nuevas propuestas (artículo 12.1).

"NOKA INDUSTRY" es un proyecto de acompañamiento a los equipos de dirección y producción en el desarrollo audiovisual de mujeres. Para ello ofrecerán cinco módulos formativos.

Módulo 1: escritura de guión con sesiones impartidas en las que se trabajará la conciencia de una misma como directora y la inmersión en la historia del cine.

Módulo 2: distintas maneras de abordar la escritura, sesiones para conocer las claves y herramientas para elaborar un buen dossier de dirección de proyecto, cómo hacer un desglose del futuro guión y cómo utilizar el movie magic o equivalente. Así mismo se empezará a trabajar el plan de financiación y la sostenibilidad.

Módulo 3: mapa de las industrias labs y foros profesionales, conocer las posibilidades de convocatorias, laboratorios, mercados y festivales donde poder presentar los proyectos y conseguir contactos con productores/as y financiación.

Módulo 4: realizar un presupuesto detallado con los mentores y un masterclass de internacionalización, cómo acudir a mercados, cómo beneficiarse de los mismos, qué oportunidades hay en los mercados o qué tipos son los más interesantes.

Módulo 5: dos masterclass, uno sobre estrategia de marketing distribución y otro sobre taller de pichings.

Para el desarrollo de los talleres se contará con personas mentoras y se impartirán cursos y talleres sobre incentivos fiscales, cultura en las series de televisión, claves para escribir una serie de televisión, criminología aplicada al cine negro, cómo presupuestar tu primer corto y por último un laboratorio de audiovisuales en Álava "Project Lab". "Audiovisual Project Lab" es un instrumento para optimizar el impulso de proyectos dirigidos a productores/as de Euskadi y sus equipos de guión y dirección a través de mentorías y asesoramiento individual de cuatro a seis proyectos seleccionados por su calidad y potencial.

El proyecto tendrá un coste total de 142.000,00.- euros, por lo que, respetando el límite al importe máximo de la ayuda establecido en el artículo 53.8 del *Reglamento (UE) 651/2014 por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado (RGEC)*, han solicitado al Departamento de Cultura y Política Lingüística una subvención, para el período 2023-2024, por importe de 90.000,00.- euros, que se distribuirán de la siguiente manera:



| urtealdia / <i>anualidad</i> | ehunekoa / <i>porcentaje</i> | zenbatekoa / <i>cuantía</i> |
|------------------------------|------------------------------|-----------------------------|
| 2023 | %25 | 22.500,00 € |
| 2024 | %75 | 67.500,00 € |
| GUZTIRA / TOTAL | %100 | 90.000,00 € |

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak ikusi du Zineuskadi Elkarteari bere proiektuan laguntzeko beharra.

Interes publiko eta kultureleko arrazoiak egiaztatuta, bai eta deialdia xedapen orokor baten bidez egiteko ezintasuna ere, proiektua gauzatu ahal izateko salbuespeneko zuzeneko dirulaguntzaren bidera baino ezin da jo.

Ondorioz, *Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.7 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori), Gobernu Kontseiluak honako erabaki hau hartu du:*

ERABAKIA

Lehenengoa.- "Zineuskadi Elkarte" (G75035105) entitateari urte anitzeko zuzeneko dirulaguntza ematea, 90.000,00.- eurotakoa, "NOKA INDUSTRY" ikus-entzunezko proiektua martxan jartzea finantzatzeko, 2023-2024 epealdian (emakumeek zuzendutako film luzeak), urteko banaketa honen arabera:

2023 (% 25): 22.500,00.- euro

2024 (% 75): 67.500,00.- euro

Dirulaguntza kontu-sail honi egotziko zaio:

1001112121 1.45133.45200 2023/001309

Urte anitzeko dirulaguntzaren xede diren jarduketak 2023-2024 epealdian gauzatu beharko dira, eta, nolahi ere, 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaituta egon beharko dute.

Bigarrena.- Urte anitzeko dirulaguntzaren URTEROKO ordainketak eta justifikazioa:

La Dirección de Promoción de la Cultura ha advertido la necesidad de apoyar a la Asociación Zineuskadi en su proyecto.

Acreditadas las razones de interés público y cultural que subyacen, así como la imposibilidad de realizar una convocatoria mediante una disposición de carácter general para concederla, solo puede acudir a la vía de la subvención directa excepcional para poder llevar a cabo el proyecto.

En su virtud, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.7 del *Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre*, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ACUERDO

Primero.- Conceder una subvención directa plurianual a la entidad "Asociación Zineuskadi" (G75035105), por importe de 90.000,00.- euros, para financiar la puesta en marcha del proyecto audiovisual "NOKA INDUSTRY", en el período 2023-2024 (largometrajes dirigidos por mujeres), conforme a la siguiente distribución anual:

2023 (25%): 22.500,00.- euros

2024 (75%): 67.500,00.- euros

La subvención se imputará a la siguiente partida presupuestaria:

1001112121 1.45133.45200 2023/001309

Las actuaciones objeto de la subvención plurianual deberán ejecutarse en el período 2023-2024 y, en todo caso, deberán estar finalizadas antes del 31 de diciembre de 2024.

Segundo.- Pagos y justificación ANUAL de la subvención plurianual:

| Ordainketak (urtealdi bakoitzean) / Pagos (en cada anualidad) | | Justifikazioa (urtealdi bakoitzean) / Justificación (en cada anualidad) |
|---|--|--|
| 2023 (22.500,00€) | Ordainketa bakarra, 2023ko urtealdiari dagokion zenbatekoa justifikatu eta gero. <i>Único pago, previa justificación del importe de la anualidad 2023</i> | Urtealdiari dagokion aurrekontu-likidatua (nominen, fakturen eta ordainagiriaren kopiekin batera) eta egindako jarduketaren gaineko txostena. Beranduenez, hurrengo urteko urtarrilaren 15ean. <i>Presupuesto liquidado de la anualidad (nóminas, facturas, justificantes de gastos) y la memoria de las actividades realizadas. No más tarde del 15 de enero del año siguiente.</i> |
| 2024 (67.500,00€) | (1) %80 (54.000,00€): 2023ko urtealdiaren ordainketarekin batera 80% (54.000,00€): <i>junto con el pago de la anualidad 2023</i> (2) Gainerako %20a (13.500,00€): 2024ko urtealdiari dagokion zenbatekoa (67.500,00€) justifikatu eta gero 20% restante (13.500,00€): <i>previa justificación del importe de la anualidad 2024 (67.500,00€)</i> | |
| Era berean, 2025eko lehen hiruhilekoan, honako hau bidali beharko da: (1) urte anitzeko egitasmoaren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu likidatua, urteka banakatuta; eta (2) egitasmoaren gaineko txostena. <i>Igualmente, dentro del primer trimestre del 2025 deberá remitir (1) el presupuesto liquidado de ingresos y gastos del proyecto plurianual, desglosado por anualidades y (2) el informe de las actividades.</i> | | |

Hirugarrena.- Dirulaguntza hau Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak kudeatuko du.

Tercero.- El órgano gestor de esta subvención es la Dirección de Promoción de la Cultura.



Laugarrena.- Erakunde onuraduna *Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren VI.* tituluan aurreikusitako laguntzen eta dirulaguntzen araubide juridikoaren mende dago, xedapen horren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu eta, bereziki, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dioten informazio guztia eman beharko du.

Bosgarrena.- Erabaki honen bidez onartutako dirulaguntza bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako eman dezaketene beste edozeinekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Kasu horretan, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak dagokion likidazio-agindua emango du, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa behar den mugaraino murriztuz.

Hala ere, laguntza hau ez da bateragarria izango Europar Batasuneko beste egitura-funtsekin.

Seigarrena.- Erakunde onuradunak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren hizkuntza-irizpideak bete beharko ditu, honela: herritarrei zuzendutako jarduerak, ekitaldiak, aurkezpenak eta abar, eta errotulazioa eta informazio-euskarriak, bai programetan, bai ikus-entzunezkoetan (bozgorailuak, panel elektronikoak, mezu automatikoak edo antzekoak), euskaraz egingo dira gutxienez, eta euskaraz eta gaztelaniaz badira, euskarari emango zaio lehentasuna.

Zazpigarrena.- *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginak (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua)* 2.5 artikuluan ezartzen duenez, EAEko botere publikoek berdintasun-klausulak txertatuko dituzte dirulaguntzetan. Beraz, dirulaguntza hau gauzatzean, berdintasun-erloto klausula hauek aurreikusten dira:

- Proiektuak aniztasuna, berdintasuna eta hezkidetzabaliok sustatuko ditu zeharka eta aktiboki, eta sortzen diren edukiek eta materialek genero-ikuspegia txertatuko dute. Gainera, horietan hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista egingo da, eta emakumeek eremu digitalean duten parte-hartze aktiboa ikusaraziko da. Gainera, sexu-generoen presentzia orekatua eta irudi plurala bultzatuko dira, edertasun-kanonak eta estereotipo sexistak eta LGBTIfobikoak alde batera utzita.
- Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiliko da herritarrei zuzendutako jardueran, ekitaldi, aurkezpen eta abarretan, bai errotulazioan eta bai informazio-euskarrietan (bozgorailuak, panel elektronikoak, mezu automatikoak...). Horretarako, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Hizkuntza Inklusiboaren Gidalerroak hartuko dira kontuan.

Zortzigarrena.- Dirulaguntza hau estatu-laguntza bat da, *Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT)* 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Hala ere, ez da beharrezkoa EBFTren 108.3 artikuluan aurreikusitako jakinarazpena egitea, laguntza salbuetsita geratzen baita, *Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritako baldintzak betetzen dituelako. Erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Europar Batasunaren Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz (KASEO).* Beraz, barne-merkatuarekin bateragarria den estatu-laguntza bat da, eta ez zaio Europako Batzordeari jakinarazi behar.

Azken batean, laguntza hau KASEOren mende dago, eta, bereziki, arau horren 53. artikuluan kulturarentzako laguntzei buruz xedatutakoaren mende. Ondorioz, laguntzaren gehieneko zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen kostuen % 80koa izango da, besteak beste.

Cuarto.- La entidad beneficiaria queda sujeta al régimen jurídico de ayudas y subvenciones previsto en el Título VI del *Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco*, al cumplimiento de las obligaciones establecidas en el artículo 50.2 de dicha disposición y, en particular, a facilitar cuanto información le fuera requerida por el Departamento de Cultura y Política Lingüística, así como por la Oficina de Control Económico del Departamento de Economía y Hacienda y por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Quinto.- La subvención aprobada mediante el presente Acuerdo es compatible con cualesquiera otras que pudieran conceder para el mismo fin otras entidades públicas o privadas, siempre que no se produzca sobrefinanciación, en cuyo caso el Consejero de Cultura y Política Lingüística dictará la orden de liquidación correspondiente, minorando el importe de la subvención adjudicada hasta el límite que sea necesario.

No obstante, la presente ayuda no será compatible con cualesquiera otros fondos estructurales de la Unión Europea.

Sexto.- La entidad beneficiaria deberá cumplir con los criterios lingüísticos del Departamento de Cultura y Política Lingüística de la siguiente forma: las actividades, actos, presentaciones, etc. dirigidos a la ciudadanía, y la rotulación y los soportes informativos, tanto en programas como en audiovisuales (altavoces, paneles electrónicos, mensajes automáticos o similares) será efectuarán, al menos, en euskera y, si son en euskera y castellano, se dará prioridad al euskera.

Séptimo.- El artículo 2.5 del *Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres* (aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo), establece que los poderes públicos vascos incorporarán cláusulas de igualdad en las subvenciones. Por tanto, en la ejecución de esta subvención se prevén las siguientes cláusulas en materia de igualdad:

- El proyecto promoverá de forma transversal y activa la diversidad, la igualdad y los valores coeducativos, y los contenidos y materiales que se generen incorporarán la perspectiva de género. Además, en ellos se hará un uso inclusivo y no sexista del lenguaje y de las imágenes, y se visibilizará la participación activa de las mujeres en el ámbito digital. Además, se potenciará la presencia equilibrada y la imagen plural de los géneros sexuales, al margen de cánones de belleza y estereotipos sexistas y LGBTIfóbicos.
- Se realizará un uso inclusivo y no sexista del lenguaje y de las imágenes en las actividades, actos, presentaciones, etc. dirigidas a la ciudadanía, rotulación y soportes informativos, tanto en programas como audiovisuales (altavoces, paneles electrónicos, mensajes automáticos...). Para ello se tendrán en cuenta las Directrices de Lengua Inclusiva del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

Octavo.- La presente subvención es una ayuda de estado de conformidad con lo establecido en el artículo 107.1 del *Tratado sobre el Funcionamiento de la Unión Europea* (TFUE). No obstante, no es necesario realizar la notificación prevista en el artículo 108.3 TFUE ya que la ayuda queda exenta porque cumple las condiciones establecidas en el *Reglamento UE 651/2014 de la Comisión de 17 de junio de 2014 por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de la Unión* (RGE). Por lo tanto, se trata de una ayuda de estado compatible con el mercado interior que no ha de ser notificada a la Comisión Europea.

En definitiva, la presente ayuda queda sujeta al RGE y, en particular, a lo dispuesto en el artículo 53 de dicha norma, relativo a las ayudas a la cultura. En consecuencia, entre otros, el importe máximo de la ayuda se establece en el 80% de los costes subvencionables.



Era berean, erakundea ezingo da onuradun izan honako bi inguruabar hauetako bat egiaztatzen bada:

- Krisialdian dagoen enpresa bada, *Krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentaraetan jasotako definizioaren arabera* (2014ko uztailaren 31ko EBAO, C249).
- Berreskuratze-agindu baten menpe dagoen, Europar Batasuneko Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta merkatu erkidearekin bateraezina dela.

KASEOren 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak Europako Batzordeari helaraziko dio, jakinarazpen elektronikoko sistemaren bidez, dirulaguntza honi buruzko informazio laburtua, dirulaguntzaren testu osoarekin batera, aldaketak barne, Erabaki hau onartu eta 20 laneguneko epean.

Era berean, KASEOren 9. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak informazio hau argitaratuko du bere webgunean:

- KASEOren 11. artikuluan aipatzen den informazio laburtua (KASEOren II. eranskinean ezarritako formatu normalizatuan).
- Erabaki honen testu osoa.

Bederatzigarrena.- Erabaki hau erakunde interesdunari jakinaraztea.

Asimismo, la entidad no podrá resultar beneficiaria en caso de que se verifique una de las dos siguientes circunstancias:

- Si se trata de una empresa en crisis, de acuerdo con la definición contenida en las *Directrices sobre ayudas estatales de salvamento y de reestructuración de empresas no financieras en crisis* (DOUE C249, de 31 de julio de 2014).
- Si se encuentra sujeta a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión de la Unión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común.

De conformidad con lo previsto en el artículo 11 RGEC, la Dirección de Promoción de la Cultura transmitirá a la Comisión Europea, a través del sistema de notificación electrónica, la información resumida relativa a la presente subvención, junto con el texto completo de la subvención, incluidas sus modificaciones, en un plazo de 20 días laborables a partir de la adopción del presente Acuerdo.

Asimismo, en aplicación de lo previsto en el artículo 9 RGEC, la Dirección de Promoción de la Cultura publicará en su página web la siguiente información:

- La información resumida a que se refiere el artículo 11 RGEC (en el formato normalizado establecido en el anexo II del RGEC).
- El texto completo del presente Acuerdo.

Noveno.- Notifíquese el presente Acuerdo a la entidad interesada.

Elévese a la aprobación del Consejo de Gobierno Jaurlaritzaren Kontseiluak erabaki dezan

Vitoria-Gasteizen, izenpe elektronikoaren datan,

Bingen Zupiria Gorostidi
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUA